



**1. lerroa: Oinarri arautzaileak Tolosako kirol-klubei funtzionamendu-gastuetarako eta jardueren sustapenerako 2025eko dirulaguntza arruntak emateko.**

**Línea 1: Bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones ordinarias 2025 para gastos de funcionamiento y fomento de la actividad de los clubs deportivos de Tolosa.**

### **1. Dirulaguntzaren xedearen definizioa**

Oinarri hauen xedea da arautzea irabazi-asmorik gabeko kirol-klubentzako dirulaguntzak, lehia bidezko konkurrentzian ematen direnak. Haien ohiko jarduera eta funtzionamendua garatzeko dirulaguntzak dira, eta Tolosako Udaleko Kirolak Sailaren helburuak errespetatzen eta indartzen badituzte ematen dira.

### **1. Definición del objeto de subvención**

Las presentes bases tienen por objeto regular la concesión de las subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, a clubs deportivos sin ánimo de lucro, para el desarrollo de su actividad y funcionamiento ordinarios, siempre que respeten y refuercen los objetivos del Área de Deportes del Ayuntamiento de Tolosa.

### **2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatzea.**

Dirulaguntza-lerro hau Tolosako Udalaren 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago. Osoko Bilkurak onartu zuen Plan hori 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023ko otsailaren 1ekoa).

### **2. Integración en el Plan Estratégico de Subvenciones.**

Esta línea de subvenciones está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa 2023-2025, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 15 de diciembre de 2022 (BOG nº21 de 1 de febrero de 2023).

### **3. Entitate onuradunak**

Entitate onuradun izan ahalko dira irabazi-asmorik gabeko kirol-klubak, baldin eta oinarri hauetan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

### **3. Entidades beneficiarias**

Podrán obtener la condición de entidad beneficiaria los clubs deportivos sin ánimo de lucro que cumplan con los requisitos establecidos en las presentes bases y en la correspondiente convocatoria.

### **4. Entitate onuradunek dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak**

Hona hemen entitate onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

1. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.
2. Beteazte-aldian Tolosako Udalarekin zerga-zorrik edo -zehapenik ez izatea, non eta ez

### **4. Requisitos que deben reunir las entidades beneficiarias para la obtención de la subvención**

Los requisitos generales a cumplir por las entidades beneficiarias son las siguientes:

1. Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.
2. No mantener deudas o sanciones tributarias en periodo ejecutivo con el Ayuntamiento de Tolosa, salvo que se

dauden geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda.

encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

3. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean.
4. Ez izatea administrazio-, lan- edo zigor-zehapen irmorik dagokion zehapenean ezarritako aldian berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik, ez izatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako debekurik, ez eta araudi aplikagarrietan ezarritako bestelako kausarik ere.
5. Ez egitea emakumeen edo emakume-taldeen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten jarduerak, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal,
3. No encontrarse en cualquiera de los supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.
4. No estar incurso/a en sanción administrativa, laboral o penal de forma firme por haber vulnerado el derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción, o no estar incurso/a en ninguna prohibición establecida en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, o en cualquier otra causa estipulada en las normativas aplicables.
5. No realizar actividades que supongan discriminación por razón de sexo o factores de discriminación múltiple, de mujeres o grupos de mujeres, cuando concurren otros factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación, tales como la raza, el color, el origen étnico, la lengua, la religión, la opinión política o de otra índole, la pertenencia a una minoría nacional, el patrimonio, el lugar de nacimiento, la discapacidad, la edad, la orientación sexual, la identidad de género, la expresión de género, el proceso migratorio, el estatus de refugiado, la cultura, el origen rural, la situación de exclusión social, la situación de seropositividad, la familia monoparental, la

sozial edo administratibo.

configuración familiar o cualquier otra condición o circunstancia personal, social o administrativa.

Hona hemen onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak:

Los requisitos específicos a cumplir por las beneficiarias son los siguientes:

1. Diruz lagundutako jarduerak bat etorri behar du elkartearen xede edo helburu sozialekin.
  2. Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea, Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan edo Elkartearen Erregistro Orokorrean izena emanda egotea, eta egoitza soziala Tolosan izatea.
  3. Erakundearen eratze-eskrituran edo estatutuetan helburuen artean egotea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egitea. Nolanahi ere, lau urteko trantsizio-aldi bat onartuko da behar duten estatutuak eduki horrekin eguneratzeko.
  4. Gipuzkoan eskola-kirolari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzea.
  5. Dirulaguntza hauen ondorioetarako, parte hartu ahal izango dute banakako kirolen klubek (eta/edo klubaren atalek), baldin eta indarrean badute errendimenduko (ez aisialdiko) 10 lizentziako gutxienezko egitura, gutxienez hiru adin-kategoriatan. Lizentzia horien % 40 gutxienez emakumeenak izango dira, eta atal honetan ezarritakora egokituko dira. Gainera, kirolari federatuen % 60 gutxienez Tolosakoak izango dira (dirulaguntza eskatu baino gutxienez 2 urte lehenago erroldatutako pertsonak).
1. La actividad subvencionada debe tener cabida dentro del objeto o fines sociales del club.
  2. Estar constituidos de acuerdo con la legislación vigente e inscritos en el Registro de Entidades Deportivas o en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco y tener la sede social en Tolosa.
  3. Que uno de los fines recogidos en la escritura de constitución o en los estatutos de la entidad sea trabajar por la igualdad de mujeres y hombres. En todo caso, se admitirá un periodo de transición de cuatro años para actualizar con este contenido los estatutos que lo precisen.
  4. Cumplir lo dispuesto en la normativa vigente en Gipuzkoa sobre Deporte Escolar.
  5. A efectos de estas subvenciones, podrán concurrir los clubs (y/o secciones de clubs) de deportes individuales que tengan una estructura mínima de 10 licencias de rendimiento (no recreativas) en vigor, como mínimo en tres categorías de edad. Al menos el 40 % del total de las licencias corresponderán a mujeres, y se ajustarán a lo establecido en este apartado. Además, como mínimo, el 60% de las personas federadas serán de Tolosa (personas empadronadas al menos 2 años antes de solicitar la subvención).



## 5. Dirulaguntzak emateko prozedura

1. Lehia bidezko prozedura erabiliko da, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez.
2. Prozedura ofizioz hasiko da deialdi publiko bidez, organo eskudunak onartuta eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.
3. Prozedura honen bidez, dirulaguntzak emateko, oinarri hauetako 13. artikuluan ezarritako irizpideen arabera ebaluatzen dira aurkeztutako eskaerak.

## 6. Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian ezarritako epearen barruan egitea; eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

2. Hona hemen diruz lagun daitezkeen gastuak:

- Lehia ofizialetan parte hartzeko izen-emateak.
- Garraioa: hegazkina, autobusa, trena.

Norberaren autoan egindako joan-etorriak justifikatzeko, inprimakia aurkeztu beharko da. Inprimakian honako hauek jasoko dira: bidaia egin duen pertsona, NANA, ibilbidea, kilometro-kopurua, bidaiaren arrazoa eta kostua. Inprimaki horrekin batera, dagokion faktura eta ordainagiria aurkeztu beharko dira.

- Dietak.
- Egonaldiak.

## 5.Procedimiento de concesión

1. El procedimiento de concesión será el de concurrencia competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.
2. El procedimiento se iniciará de oficio mediante convocatoria pública, aprobada por el órgano competente y publicada en la Base Nacional de Subvenciones, así como en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.
3. Mediante este procedimiento la concesión de subvenciones se realiza evaluando las solicitudes presentadas de acuerdo con los criterios establecidos en el art. 13 de las presentes bases.

## 6. Gastos subvencionables

1. Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, se realicen dentro del plazo establecido en la convocatoria, cuyo valor de adquisición no supere el valor de mercado y sean efectivamente pagados con anterioridad a la finalización del plazo de justificación.

2. Los gastos subvencionables son los siguientes:

- Inscripciones de participación en pruebas oficiales.
- Transporte: avión, autobús, tren.

Los desplazamientos en coche particular deberán justificarse mediante impreso, en el que conste la persona que ha realizado el viaje, su DNI, ruta, número de kilómetros, motivo del viaje y coste. Este impreso irá acompañado de la factura correspondiente y el justificante de pago.

- Dietas.
- Alojamientos.



- Pertsonal gastuak (teknikariak).

Langileen gastuak honako hauen bidez egiaztatu ahal izango dira: nominak, edo nomina-programatik lortzen den langileko urte osoko laburpena, biak sinatuta.

TC1 eta TC2.

190 eredia.

190 eredia aurkeztuz justifikatzen bada, urteko gastu totala zein den zehazteaz gainera, langile bakoitzari dagokion gastua zehaztua azaldu beharko du.

- Publizitatea.
- Ekipazioak.
- Materialaren mantenua.
- Sariak, trofeoak.
- Beste zerbitzu batzuk.

Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa, obra-exekuzioaren kostuari dagokionez, 40.000 eurotik gorakoa bada (BEZa sartu gabe), edo aholkularitza edo asistentzia teknikoko enpresek egindako ondasun-horniketa edo zerbitzu-prestazioen kasuan 15.000tik gorakoa bada (BEZa sartu gabe), onuradunak, gutxienez, hiru eskaintza eskatu behar dizkie hiru hornitzailei, zerbitzu-prestazio edo ondasun-horniketarako konpromisoa onartu baino lehen. Hau da salbuespena: diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez egotea behar adina entitate dagokion horniketa egiteko edo zerbitzua emateko, edo gastua dirulaguntza-eskaera egin baino lehen eginda egotea, eta agiri bidez hala egiaztatzea.

Eskatu diren hiru eskaintza horiek aurkeztu egin behar dira justifikazioa egiterakoan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran, eta haien arteko hautaketa eraginkortasun-

- Gastos de personal (técnicos/as).

Los gastos de personal podrán acreditarse mediante: nóminas, o resumen anual por trabajador que se obtenga del programa de nómina, firmadas ambas.

TC1 y TC2.

Modelo 190.

El modelo 190 habrá de especificar el gasto total, así como la relación de los/as trabajadores/as y el gasto correspondiente de cada uno/as de ellos/as.

- Publicidad.
- Equipaciones deportivas.
- Mantenimiento material.
- Trofeos, premios.
- Otros servicios.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 40.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o de 15.000 euros en el supuesto de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, la beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención y así se acredite documentalmente.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberá aportarse en la justificación, o en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a



eta ekonomia-irizpideen arabera egin behar da. Hala, aukeratutako eskaintza ez bada ekonomikoki onena, txosten batean justifikatu beharko da hautaketa hori.

Ez dira, inolaz ere, diruz laguntzeko gastuak izango hauek:

- Ez da onartuko bazkarien, afarien edota ostalaritzako zerbitzuen kosturik, ez badute harreman zuzena klubaren kirol-jarduera zehatz batekin eta gastua jardueraren parte-hartzaileek eragindakoa ez bada. Gastu horiek modu egokian justifikatu beharko dira, dagokion kirol-jarduerari atxikiz.
- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interesak, errekarquak eta zehapen administratibo eta penalak.
- Prozedura judizialek eragindako gastuak.
- Zeharkako zergak, errekupegarriak edo konpentsagarriak izan badaitezke.
- Errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- Entitate onuradunaren ondasun inbentariagarrien amortizazio-gastuak, jarduera garatzeko erabiltzen badira (salbu eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.6 artikuluko baldintzak betetzen badira).

criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

No tendrán en ningún caso la consideración de gasto subvencionable los siguientes:

- No serán subvencionables los gastos correspondientes a hostelería como comidas o cenas, a menos que estén relacionados directamente con alguna actividad deportiva concreta del club, y que estén originados por los/as propios/as participantes de la misma. Estos gastos deberán justificarse debidamente relacionándolos con la actividad correspondiente.
- Intereses deudores de cuentas bancarias.
- Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- Gastos originados por procedimientos judiciales.
- Impuestos indirectos, siempre que sean susceptibles de recuperación o compensación.
- Impuestos personales sobre la renta.
- Gastos de amortización de los bienes inventariables de la entidad beneficiaria que se utilicen para el desarrollo de la actividad (salvo que se cumplan los requisitos del artículo 31.6. de la Ley General de Subvenciones).





## 7. Eskaerak aurkezteko modua eta lekua.

Oinarri hauek eta deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratuko dira.

Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikuluetan zehaztutako beste batzuek telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskaerak, Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.

## 8. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Udalak emandako eskaera-orri normalizatua. Udalaren egoitza elektronikoan sartu, <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCSe rvicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=EU07112884>. Eskaera horri hori entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du.

Eskaera-orrian, hauek adierazi behar dira:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, aplikatzekoa den araudiaren arabera dirulaguntzak lortzeko debekurik ez duela adierazten duena.
2. Erantzukizunpeko adierazpena, beste sail, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, jardura edo helburu bererako eman zaizkionak jasotzen dituen.

## 7. Forma y lugar de presentación de solicitudes.

Las presentes bases y la convocatoria serán publicadas en la Base de Datos nacional de Subvenciones (BDNS) así como en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG).

En el caso de las personas jurídicas, entidades sin personalidad jurídica y otras especificadas en los artículos 14.2 y 14.3 de Ley 39/2015, 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas deberán presentar sus solicitudes por vía telemática a través de la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Tolosa.

## 8. Documentación a acompañar a la solicitud

Impreso de solicitud normalizado facilitado por el Ayuntamiento, accediendo a la Sede Electrónica <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCSe rvicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=CA07112884>. Dicho impreso deberá estar firmado por la persona que tenga la capacidad legal para representar a la entidad solicitante.

En el mismo, se indicarán los siguientes aspectos:

1. Declaración responsable de no estar incurso/a en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones según lo estipulado por la normativa aplicable.
2. Declaración responsable en la que se hagan constar las solicitudes de subvención formuladas ante otros departamentos, instituciones, organismos, etc., o en su caso, de las que estuvieran otorgadas para la misma actividad o finalidad.

3. Ordezkaritza-agiria, hala badagokio.

3. Documento de representación, en su caso.

4. Jardueren aurreikuspena (DKKE-PRE-00 inprimakia) bestek beste honako hauek adierazita:

4. Proyecto de actividad (impreso DKKE-PRE-00) en el cual se indicarán, entre otros, los siguientes aspectos:

- a) Jardueraren hedapenerako euskararentzat aurreikusatako tratamendua.
- b) Genero-ikuspegiaren eta ikuspegi intersektionalaren tratamendua proiektuan, eta berdintasun-helburuen presentzia, aldez aurreko egoera diferentzialaren arabera, hala badagokio.

a) Tratamiento del euskera previsto en la difusión de la actividad.

b) Tratamiento de la perspectiva de género e interseccional en el proyecto y presencia de objetivos de igualdad, en función de la situación diferencial previa, en su caso.

5. Jarduerak izango dituen gastu eta diru-sarreraren aurreikuspena. (inprimaki bera)

5. Presupuesto de gastos e ingresos de la actividad (mismo impreso)

Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada:

En caso de oposición a la consulta de documentos:

6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.

6. Certificado de estar al corriente de los pagos con la Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Seguridad Social.

7. Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.

7. Certificado de estar al corriente de los pagos con el Ayuntamiento de Tolosa.

8. Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.

8. Certificado de la titularidad de la cuenta corriente.

9. IGAEri BDNSn dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioaren agiria.

9. Certificado de inhabilitaciones para obtener subvenciones y ayudas de BDNS al IGAE.

## 9. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

## 9. Documentación interoperable y verificable.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela Tolosako Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko.

La ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en el artículo 28 reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos que ya se encuentren en poder del Ayuntamiento de Tolosa.





Ondorio horietarako, pertsona edo erakunde interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, betiere 5 urte baino gehiago igaro ez badira dagokien prozedura amaitu zenetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.3 artikulua araberak, eta organo instrukzio-egileak eskatu beharko ditu, salbu eta prozeduran jasota badago pertsonaren/erakundearen berriazko aurkakotasuna, edo aplikatzekoa den lege bereziak berriazko adostasuna eskatzen badu.

Era berean, herritarrei aitortzen zaie edozein Administrazio egintza dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Tolosako Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez. NISAE euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztiek erabiltzen duten plataforma da, datu elektronikoak administrazio batzuen eta besteen artean partekatzeko nodo autonomikoa, hain zuzen.

Pertsona/entitate eskatzaileek berriaz adierazi ahal izango dute ez daudela ados dokumentuak egiaztatzearekin; horrelakoetan, haiek aurkeztu beharko dituzte dokumentuak.

Illo horretan, dirulaguntza lerro honetarako, honako baldintza hauek egiaztatuko dira NISAE bitartekaritzarako edo sarbide publikorako plataforma korporatiboen bidez:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- IGAERI BDNSn dirulaguntzak eta

A estos efectos, la persona o entidad interesada deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos, siempre y que no hayan transcurrido más de 5 años desde la finalización el procedimiento al que correspondan, de acuerdo al artículo 23.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, debiendo ser recabados por el órgano instructor, salvo que conste en el procedimiento la oposición expresa de la persona/entidad o la ley especial aplicable requiera su consentimiento expreso.

A su vez, se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración. De tal forma que el Ayuntamiento de Tolosa podrá consultar o recabar dichos documentos a través del nodo de interoperabilidad NISAE, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para el intercambio de datos electrónicos entre distintas administraciones.

Las personas/entidades solicitantes podrán mostrar su oposición expresa a la verificación de documentos, en cuyo caso serán ellas mismas las encargadas de su aportación.

En este sentido, los requisitos que se verificarán para esta línea de subvención a través de las plataformas corporativas, de intermediación NISAE o acceso público serán los siguientes:

- Certificado de estar al corriente de los pagos con la Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa y Seguridad Social.
- Certificado de inhabilitaciones para

laguntzak eskuratzeko  
inhabilitazioaren agiria.

- Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.

obtener subvenciones y ayudas de  
BDNS al IGAE.

- Certificado de estar al corriente de los pagos con el Ayuntamiento de Tolosa.
- Certificado de titularidad de la cuenta corriente.

Salbuespenez, instrukzio-organoak ezin baditu aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak eskuratu, berriz eskatu ahal izango dio entitate eskatzaileari aurkez ditzala.

Excepcionalmente, si el órgano instructor no pudiera recabar los documentos citados en los apartados anteriores, podrá solicitar nuevamente a la entidad solicitante su aportación.

Besterik ezean, prozedura bideratu eta ebazteko ardura duen organo eskudunak eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia.

En última instancia, el órgano competente responsable de instruir y resolver el procedimiento podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

## 10. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria.

Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitazeko agiriak aurkez ditzan. Era berean, adieraziko zaio, eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, ebazpena emango da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

## 10. Subsanación de errores y documentación complementaria.

Si la solicitud de iniciación no reúne los requisitos establecidos en la convocatoria se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada, de conformidad con lo establecido en el Artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

## 11. Balorazio-irizpideak eta puntuazioa

Proiektuek, gehienez, 123 puntu eskuratu ahal izango dituzte, irizpide hauen arabera:

- Kirolarien lizentziak: kopurua eta generoa, 70 puntu arte.

## 11. Criterios de valoración y puntuaciones

Los proyectos serán valorados hasta un total de 123 puntos, conforme a los siguientes criterios:

- Licencias deportistas: número,



género: hasta 70 puntos

- Lehiaketa-maila, 15 puntu arte.
- Teknikarien kualifikazioa, 15 puntu arte.
- Kirol egituren profesionalizazioa, 10 puntu arte.
- Autofinantzatzeko gaitasuna (gastuen eta diru-sarreraren erlazioa), 8 puntu arte
- Berdintasun-balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitatea sustatzen dutenak, 5 puntu.
- Nivel de competición: hasta 15.
- Cualificación del equipo técnico: hasta 15 puntos
- Profesionalización de las estructuras deportivas: hasta 10 puntos
- Capacidad de autofinanciación (relación gasto-ingreso): hasta 8
- Valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, diversidad en roles y que promuevan la identidad de género, 5 puntos.

1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen du. Horren 23.3.b) artikulua ezarritakoa betez, deialdi honetan banatu beharreko guztizko kopurutik, adierazleak barematzen hasi aurretik, % 5 gordeko da bi irizpide betetzen dituzten erakunde eskatzaileentzat, adierazle bakoitzean ezarritakoaz harago. Bi irizpide horiek hauek izango dira: zuzendaritza-taldean emakumeak egotea, eta lizentzia guztien gutxienez % 40 emakumezkoenak izatea.

Aurreko banaketa adierazitako irizpideak betetzen dituzten eskatzaileen artean egingo da. Gordetako % 5 horretatik soberakinik geratzen bada, banatu beharreko guztizko zenbatekora itzuliko da soberakina.

Bi irizpide horiek ez betetzeak ez dakar dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea, eta ez die eragiten gainerako adierazleei

En cumplimiento del art. 23.3.b) Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, de la cantidad total a repartir en esta convocatoria y antes de proceder a la baremación de los diferentes indicadores, se reservará un 5% para las entidades solicitantes que cumplan dos criterios, más allá de lo establecido en cada uno de los indicadores. Estos dos criterios serán: que en el equipo directivo haya representación femenina, y que como mínimo el 40% del total de las licencias sean femeninas.

El reparto del punto anterior se realizará entre los/as solicitantes que cumplan los criterios señalados. Si del 5% reservado quedara remanente, esta cantidad volverá al importe total a repartir.

El no cumplimiento de estos dos criterios no supone la pérdida del derecho de subvención y tampoco afecta al resto de los



ere.

Proiektuek, dirulaguntza eskuratu ahal izateko, gutxienez 35 puntu eskuratu beharko dituzte.

## **12. Dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua zehazteko irizpideak.**

Ebaluazio-adierazleak honela puntuatuko dira:

### **a) Federazioetako errendimendu-lizentziak.**

Abian den denboraldiari dagozkion errendimendu-txapelketa edo liga ofizialetarako lizentziei puntuak emango zaizkie.

- 1 puntu federazioetako oinarritzko errendimendu-lizentzia bakoitzeko.
- 1,5 puntu federazioetako errendimendu-lizentzia bakoitzeko, kirol autoktonoen modalitateetan.
- 2 puntu eliteko, goi-mailako edo errendimendu handiko lizentzia bakoitzeko (\*).
- 5 puntu kirol egokituko federazioaren lizentziengatik.

Federazioetako emakumezko errendimendu-lizentzien kasuan, kadete-mailatik gorako kategorietarako, emakumezkoen lizentzien puntuazioari % 50 erantsiko zaio.

(\*) Oinarri hauen ondorioetarako, eliteko, goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaritzat hartuko da Kirol Kontseilu Gorenak (CSD) eta/edo dagokion autonomia-erkidegoak hala katalogatu duena.

### **b) Lehiaketa maila.**

Ekipo bakoitzak errendimendu txapelketa ofizialetan duen lehiaketa-esparruaren

indicadores.

Para tener acceso a la subvención, los proyectos deberán tener una valoración mínima de 35 puntos.

## **12. Criterios para determinar la cuantía individualizada de la subvención.**

Los indicadores de evaluación se puntuarán de la siguiente manera:

### **a) Licencias federativas de rendimiento.**

Se otorgan puntos a licencias para campeonatos o ligas oficiales de rendimiento correspondientes a la temporada en curso.

- 1 punto por licencia federativa de rendimiento básica.
- 1,5 puntos para licencias federativas de rendimiento en modalidades autóctonas.
- 2 puntos por licencia de élite, alto nivel o alto rendimiento (\*).
- 5 puntos por licencias de la federación de deporte adaptado.

Para cada licencia federativa femenina de rendimiento a partir de la categoría cadete a la puntuación de las licencias femeninas se le añadirá un 50%.

(\*) A los efectos de las presentes Bases se considerará deportista de élite, alto nivel o alto rendimiento a quien así lo haya catalogado el Consejo Superior de Deportes (CSD) y/o la comunidad autónoma a la que pertenece.

### **b) Nivel de competición.**

Por ámbito de competición de cada equipo en



arabera.

competiciones oficiales de rendimiento.

Taldeko kirolariak:

Para deportes de equipo:

- Lurraldekoa: 0,5 puntu taldeko.
- Erkidegokoa: 1 puntu taldeko.
- Estatukoa: 3 puntu taldeko.
- Europakoa edo haragokoa: gehienez, 10 puntu.

- Territorial: 0,5 puntu por equipo.
- Autonómico: 1 puntu por equipo.
- Estatal: 3 puntos por equipo.
- Europea o más: hasta 10 puntos.

Banakako kirol-modalitateetarako, banakako 10 lizentziako multzo bakoitza taldeztat hartuko da. Kirolariek kategoria bakoitzean lortutako lehiaketa-maila gorenaren arabera emango da puntuazioa (kirolari-kopurua edozein izanda ere). Horien baturak emango du puntuazioa adierazle honetan. Taldeko kirolariak aplikatzen den irizpideari jarraituko zaio lehiaketa-esparruetan.

Para las modalidades deportivas individuales, por cada 10 licencias individuales se considerará un equipo. La puntuación se otorgará de acuerdo al máximo nivel de competición alcanzado por los/las deportistas en cada categoría (independientemente del número de deportistas). La suma obtenida dará la puntuación en este indicador. Se seguirá el mismo criterio por ámbito de competición, que el aplicado para los deportes colectivos.

10 kirolaritik beherako talde bat edo talde metatua 10 kirolari baino gehiagokoa denean, baina beste talde bat osatzeko adinakoa ez denean, proportzioan aplikatuko da lehiaketa-esparru bakoitzerako ezarritako puntuazio-tartea.

Cuando resulta un grupo menor de 10 o el acumulado sobrepasa los/as 10 deportistas, pero no completa un nuevo grupo, se aplicará proporcionalmente el margen de puntuación establecido para cada ámbito de competición.

Lehiaketa-esparrua behin bakarrik kontabilizatuko da denboraldi bakoitzeko, baita parte hartutako lehiaketak edo txapelketak gehiago izan badira ere.

El ámbito de participación se contabilizará una sola vez por temporada deportiva, aunque las competiciones o campeonatos en las que se haya participado sean más.

Aisialdiko ligek ez dute punturik ematen.

Las ligas de recreativas no se puntúan.

**c) Lizentzia indarrean duen kirol-titulu bakoitzeko.**

**c) Por titulación deportiva con licencia en vigor.**

- 0,5 puntu monitore bakoitzeko.
- 1 puntu oinarritzko entrenatzaile (I. maila) edo KT1 (kirol teknikaria) bakoitzeko.
- 2 puntu KT2, erdi mailako entrenatzaile (II. maila), jarduera

- 0,5 puntos por monitor/a.
- 1 puntu por entrenador/a básico/a (nivel I) o por cada TD1 (técnico/a deportivo/a).
- 2 puntos por TD2, entrenador/a de nivel medio (nivel II), técnico/a en



fisiko eta kirol-jardueretako teknikari bakoitzeko, edo irakasle-ikasketak (jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan espezializatuta) eginak dituen bakoitzeko.

- 4 puntu KT3, goi mailako teknikari-entrenatzaile (III. maila) edo jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan lizentziadun bakoitzeko.

Puntuazio bakoitzari % 50 gehituko zaio tituludunak emakumeak badira.

Titulazio bakoitzeko puntuak eragina izango dute dirulaguntza kalkulatzeko, astean 6 ordutik gorako dedikaziotik aurrera, lehiaketa-jardunaldia barne.

**d) Autofinantzaketa:** finantzaketa askotariko diru-iturrietatik lortzeko gaitasuna.

- Diru-sarrera guztien % 20-40, 3 puntu.
- Diru-sarrera guztien % 41-50, 5 puntu.
- Diru-sarrera guztien % 51 edo gehiago, 8 puntu.

\* Kirolarien kuotei eta bestelako dirulaguntzei lotutako diru-sarrerak ez dira aintzat hartuko ondorio hauetarako.

- e) Erakundeen kirol-egiturak profesionalizatzea:** Kirol-teknikarien lan-egoera baloratuko da, 1 puntu emanda teknikari bakoitzagatik, lan egoera kontratu bidez erregularizatuta badute, zerbitzuak emanez (fakturazioa) edo indarrean dagoen lan-legearekin bat datorren beste modu batean. Gehienez, 5 puntu. Teknikariak emakumeak badira, bakoitzagatik 2 puntu emango dira,

actividades físicas y deportivas (TAFYD) o magisterio con especialidad en ciencias de la educación física y el deporte.

- 4 puntos por TD3, técnico-entrenador/a (nivel III) o licenciatura en ciencias de la educación física y el deporte.

Cada puntuación se incrementará en un 50% cuando las titulaciones correspondan a mujeres.

Los puntos por titulación surtirán efecto para el cálculo de la subvención a partir de 6 horas/semana de dedicación incluida la jornada de competición.

**d) Autofinanciación:** capacidad para obtener financiación de fuentes diversas.

- c) Entre 20% y 40% del total de ingresos, 3 puntos.
- d) Entre 41 % y 50 % del total de ingresos, 5 puntos.
- e) 51 % o más del total de ingresos, 8 puntos.

\* Los ingresos por cuotas de deportistas y otras subvenciones no se considerarán a estos efectos.

- e) Profesionalización de las estructuras deportivas:** se valorará la situación laboral del personal técnico concediendo 1 punto por cada técnico/a en situación laboral regularizada mediante contrato laboral, prestación de servicios (facturación) u otra acorde a la legislación laboral vigente, hasta un máximo de 5 . En el caso de que sean mujeres se darán 2 puntos por cada una hasta un máximo de 10 puntos.



eta gehienez, 10 puntu.

**f) Balio sozial erantsiko kirol-jarduerak antolatzea.**

Gizarteratzeko eta integratzeko kirol-eskaintza hobetuko duten gizarte-intereseko berariazko ekimenak, praktikak eta ekintza positiboak, eta, gainera, berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak sustatzen dituztenak, 5 puntu.

Dirulaguntzaren ondorioetarako, elkartearen edo haren atalen jardueretatik gizartean eta/edo kirolean eragin handiena duenak emango ditu puntuak, beti ere defizitarioa bada. Puntuak lortzeko, beharrezkoa izango da jardueraren berariazko memoria aurkeztea.

Gehienez 5 puntu emango dira atal honetan.

Atal honetan lortutako puntuak klubaren guztizko puntuazioari gehituko zaizkio, baldin eta dagokion dirulaguntza klubaren guztizko defizitaren berdina edo txikiagoa bada.

Aurkeztutako proiektuei dagokien zenbatekoa deialdirako erabilgarri dagoen kreditua baino handiagoa bada, onartutako eskaera guztien artean hainbanatuko da.

Puntuaren balioa zehazteko, eragiketa hau egingo da: atal honetako dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa zati onartutako eskaera guztiei esleitutako puntu kopurua. Eskaera bakoitzak eskuratutako puntuen batura izango da dirulaguntza, lehen aipatutako mugak kontuan izanda.

Era berean, dirulaguntzaren zenbatekoa

**f) Organización de actividades deportivas de valor social añadido.**

Iniciativas, prácticas y acciones positivas de interés social que mejoren la oferta deportiva en favor de la inclusión y la integración específicamente, que, además, fomenten valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género, 5 puntos.

A efectos de la subvención puntuará el evento del club y/o de la sección con mayor repercusión social y/o deportiva, siempre que sea deficitaria. Para obtener puntos será necesaria una memoria específica del evento.

Se dará un máximo de 5 puntos en este apartado.

Los puntos obtenidos en este apartado sólo se sumarán a la puntuación global del club en el caso de que la subvención resultante sea igual o inferior al déficit total del club.

En el supuesto de que el importe correspondiente a los proyectos presentados exceda del crédito disponible para la convocatoria, se procederá al prorrateo entre todas las solicitudes admitidas.

Para determinar el valor del punto se dividirá el montante global de la subvención de este apartado por el número de puntos asignados a todas las solicitudes admitidas. La subvención será la suma de los puntos obtenidos por cada solicitud teniendo en cuenta los límites anteriores.

A su vez, para establecer la cuantía de la



finkatzeko, aurkeztutako balantzearen defizita hartuko da aintzat.

subvención se tendrá en cuenta el déficit del balance presentado.

### 13. Entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak

- Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu – euskarari lehentasuna emanda– diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.
